

GIZARTERATZEKO EGOITZA ZENTROAK

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Gizarte bazterketa egoeran dagoen pertsona > Aldi baterako edo egonaldi luzeko ostatu zerbitzua

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Bazterkerian dauden 18 urte edo gehiagoko pertsonak.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Bazterketaren balorazioa.

18 urte edo gehiago.

Errolda (**6 hilabete**).

Zertan datza?

Egonaldi ertain edo luzeko egoitza-zentroak dira, ostatua eta beharrezko laguntza eskaintzen dutenak, erabiltzaileek pixkanaka bizi normalizatua izan dezaten komunitatean ([2.4.5 fitxa](#)). Egonaldia gizarteratzeko ibilbide bat betetzera baldintzatuta dago. Zentro horiek intentsitate handiko laguntza eskaintzen dute, gabezia psikosozialak eta/edo etxerik ez duten erabiltzaileen gaitasun pertsonalak eta harreman-trebetasunak hobetzeko. Horretarako, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte: informazioa, jarraipena, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, laguntza psikosoziala, prestakuntza-jarduerak eta lan-orientazioko jarduerak... Intentsitate ertaineko osasun-laguntza, otordu-zerbitzuak, ikuztegia, garbiketa eta zaintza ere barne har ditzakete.

Norentzat?

18 urte edo gehiagoko pertsonak, **bazterketa egoeran** daudenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Aurre-aurreko 6 hilabeteetan **EAE**n erroldatuta egotea.

Laguntza-intentsitate handia behar izatea.

Gizarteratze-ibilbide baterako **konpromisoa hartzea.**

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

Informazio gehiago:

- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Araban](#)
- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Bizkaian](#)
- [Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)